



## Kontuak, argi eta garden

**2019KO KONTUAK POSITIBOAN ITXI DIRA.** Azken 8 urteetan egin dugun bezala udalaren kontuak ezagutzera emateko ekitaldi publikorik egiterik ez dagoenez, aldizkari honen argitalpena aprobetxatzen dugu Agoizko herri osoari 2019ko ekitaldiko kontuen berri emateko.

Joan den ekainaren 7an, Agoizko Udalak 2019ko ekitaldi ekonomiko kontuak ixtea onartu zuen osoko bilkuran, eta baita Kanpondoa elkarre publikoaren eta Mariano García Musika Eskolaren Patronatuaren zenbakiak ere.

Sarrera-gastuen balantzeak 60.888,53 euroko saldo positiboa utzi digu, eta hori kopuru ona da udalarentzat. Balantze positibo horrek baikor sentiarazten du udala 2011tik ekarri dugun bila-kaera ekonomikoari dagokionez.

Aurreko ekitaldia 10.667,08 €-ko saldo positiboarekin amaitu zen, beraz, joera, argi eta garbi, ona da. Hala ere, kontuz ibili behar dugu zifrari dagokionez; izan ere, oso positiboa izan bada ere, tokiko egoera ekonomikoa kezkarria da.


2019ko ekitaldian, 3.356.070,28 €-ko eskubide aitortu garbiak (diru-sarrerak) eta 2.973.042,93 €-ko betebeharrak aitortu garbiak (gastuak) izan dira. Hasiera batean, balantzea 383.027,35 euro-

koa da. Kopuru horren arrazoia da 322.138,82 €-ko finantziario-desbideratze positiboa eman dela, Nafarroako Gobernuak argiteria publikoa aldatzeko eman zigun interesik gabeko maileguagatik. Mailegu hori obra guztiak amaitutakoan hasiko gara ordaintzen, eta hamar urtean amortizatuko dugu, interesik gabe, lehen aipatu dugun bezala. Diru-sarrerari kopuru hori kentzen badiogu, 60.888,53 euroko zifra positiboa uzten digu, hasieran aipatu dugun bezala.

KONTZEPTUA	EKITALDIAREN ITXIERA
Aitortutako eskubide garbiak	3.356.070,28 €
Aitortutako betebeharrak	2.973.042,93 €
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>393.027,35 €</b>
<b>DOIKUNTZAK</b>	
Finantzaketa positiboaren desbiderapena (argiteriaren mailegua)	322.138,82 €
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (DOITUA)</b>	<b>60.888,53 €</b>



**DIRUZAINZA OROKORRA.** Diruzaintzako gerakinari dagokionez, negatiboa izaten jarraitzen du, zehazki -94.927,41 € (argien mailegua kontuan hartu gabe), eta horrek muga bat dakarkio udalari aurrekontuan (onartu ondoren) aldaketak egiteko orduan. Zifra gorri hori poliki-poliki murrizten ari bada ere, oraindik bide luzea dugu egiteko.



Udalaren zor biziak ere behera egiten jarraitzen du. 2019an zehar, guztira 116.990,67 € amortizatu dira aktibo ditugun maileguetatik: epaitegiko eraikina, zentro hidrotermala eta 2015ean eta 2018an, Nafarroako Gobernuak eta Itoiz fundazioak aurreko lege-gintzaldietan ordaindu ez zituzten

konpromisoei aurre egiteko hartutako maileguak. Zor horiek udalaren gastu arruntari aurre egitea ezinezko egin digute.

2019ko abenduaren 31n, udalerrriaren zor bizia 621.047,08 eurokoa zen, duela lau urte baino

200.000 euro txikiagoa. Udalaren gastu arruntari aurre egiteko lehen aipatutako 400.000 eta 120.000 euroko maileguak eskatu baziren ere, zorra 2011. urtean udalera iritsi ginenean zegoena baino askoz ere murriztagoa da.

Ekonomia hobetze bidean dagoela agerikoa bada ere, udalak oraindik zailtasun handiak ditu gastuak ordaintzeko, likidezia falta dela eta.

Oso atzeratuta dago ordaintzekin, azken bi urteetan gutxitzen eta nabarmen murrizten ari badira ere, oraindik zama handia delako.

Hurrengo taulan udalaren urteko gastu eta diru-sarrera arruntak ikus daitezke.

KONTZEPTUA	SARRERAK	GASTOS	BALANTZEA
ZERGAK	890.542	-	890.542
TOKIKO OGASUNEN FUNTSA	785.593	-	785.593
LANGILEAK	-	795.563	-795.563
KANPONDOA (udalaren ekarpena)	-	216.892	-216.892
MUSIKA ESKOLA (udalaren ekarpena)	-	64.700	-64.700
KULTUR ETXEA	15.603	123.869	-108.266
IZAGA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA	3.381	67.338	-63.957
0-3 URTEKOENTZAKO HAUR ESKOLA	154.967	241.421	-86.454
MAILEGUAK	-	116.990	-116.990
GASTU ARRUNTA (argia, gasa, gasolioa...)	110.000 gutxi+-	200.000 gutxi+-	-90.000 gutxi+-

Taulan ikus daitezkeen bezala, udalaren eguneroko funtzionamenduak gastu handia dakar, eta horrekin diru-sarreraren eta gastuen balantzea oso estu gelditzen da. Hori dela eta, udalak eskuak lotuta dauzka, proiektu berririk bultzatzeko.

tzeari buruz, zuhurtziaz jokatu beharra aipatu da. Izan ere, balantzea positiboa izan da diru-sarrera asko izan direlako atzeratutako eta eguneratu zergengatik, JEZ-a (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) kasu, eta baita Nafarroako Kanaleko Zentral Hidroelektrikoaren kontribuzioa kobratzea lortu delako. Horregatik, bada, zifra irudikeria baino ez da.



**EPE LABURRERAKO HELBURUA.** Aurreko bi legegintzaldietan lan handia egin da gastua eta zorra murrizteko, horretarako ekintza eta ekimenen ugari bultzatuz, eta orain zaila izan da gastua gehiago doitzea. Hala ere, Kanpondoko gerentea azterketa sakona egiten ari da, instalazioaren energia-gastua murrizteko.

Gastuari are gehiago eusteko

ditugun zailtasunak direla eta, ekonomia hobetzeko urrats berririk eman nahi badugu, ganoraz eta adimenez jokatzea eramaten gaitu. Nafarroako Gobernuaren ekarpen ekonomikoa handitzea da oraingo gure borrokaren ardatza; izan ere, batetik, eskualde osorako funtsezko zerbitzuak eskaintzen ari gara eta, bestetik, Itoiz-Nafarroako ubidea azpiegitura jasaten dugu, Nafarroako zati handi batek

azpiegitura horren onura jasotzen ari den bitartean.

Udalak Agoizko egoera ekonomikoa hobetzeko trinko lan egiteko konpromisoa du, eta gure esku dagoen guztiari ekinen diogu Nafarroako Gobernuaren aldetik finantzaketa hobea lortzeko, eta, aldi berean, azken urteetan mantendu dugun euste-ildoarekin jarraituko dugu.

## 2020ko Agoizko jaiak, bertan behera

COVID-19ren pandemiak mundu osoan eragin eta bizi dugun egoera ezohiko eta aparta dela eta, Agoizko Udalak erabaki zaila eta tristea hartu behar izan du, hots, ofizialki bertan behera uztea 2020ko jaiak, tradizioz abuztuaren bigarren igandean ospatzen ditugunak.

Udal talde osoak sakon aztertu eta hausnartutako neurria da, eta erabaki aurretik egoera posible eta ertz guztiak baloratu dira. Horien artean, segurtasuna, gune publikoetan jende asko biltzen duten ekitaldiak egiteko orduan. Gure ustez, osasuna da gaur egungo lehenetasuna, eta, horrenbestez, gure egitekoa da gure esku dauden neurri guztiak hartu eta zorroztea, urtero gure herrira etortzen

diren herritar eta bisitari guztiak babesteko.

Gure jaiak ezin dira ospatu egun duten formatuagatik, ez baitira ematen osasun-agintariek eskatzen dituzten bermeak. Hori dela eta, uste dugu ospakizuna bertan behera uztea dela koherenteena eta zentzuzkoena, gaitza ez zabalteko hartutako prebentzio-neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezkeen; izan ere, horiek ospatzeak pandemia berriz sortzea ekar dezake, beharrezko segurtasun-neurriak mantentzea zaila denez birusaren zirkulazioa berriro aktibatzeak arriskua dagoelako.

Baina 2021 gure zain dago, eta Agoizko Udalean lanean jarraitzen

dugu datorren urtean kultur eta jai-ekitaldiak betetako programazio zabal batez gozatu ahal izan dezagun. Eta, batez ere, gure jai maiteak ahalik eta gehien bizi ditzagun osasun segurtasun osoz.

Azkenik, Agoizko guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu erabaki zail hau ulertzeagatik, eta, aldi berean, animo-mezu bat helarazi nahi diegu jaiak eragile ekonomiko eta urteko sostenguen parte garrantzitsu bat dituzten guztiei. Gogoan izan birusa ez dela desagertu, gure artean jarraitzen duela eta kutsatzeko arriskua benetakoa dela. Horregatik, erantzukizunera jotzen dugu berriro, inoiz ez orain bezala, pertsona guztien osasuna gutako bakoitzaren esku dagoelako.



## Udako igerilekuen denboraldia

«Normaltasun berrira» sartzearekin batera, Kanpondoa kirolguneak ekainaren 22an ireki zituen berriro ateak, udako denboraldia inauguratzeko. Aurreko urteekin alderatuta, astebeteko atzerapena izan du irekierak, COVID-19ren eta hala adierazten zuten osasun-agingtarien eta Nafarroako Gobernuaren gomendioen ondorioz.

Kanpondoaren eta Agoizko Udalen asmoa udari ahalik eta normaltasunik handiena ematea da, baina, betiere, konplexuaren erabiltzaile guztien segurtasuna bermatuz, indarrean dagoen araudia uneoro betez eta garbitasun- eta higiene-neurriak zorrotz betez.

Denboraldi hau apartekoa da funtzionamenduari dagokionez, eta horregatik Kanpondoak eskertzen du instalazioa bisitatzen duten pertsona guztiek ulertzea aurkituko dituzten neurri bereziak eta ezohikoak beharrezkoak direla,



egoerak agintzen baitu araudi ezberdina ematea.

Udako denboraldi honetarako aplikatu beharreko baldintza berriak aldatu edo egokitu egin daitezke, agintari eskudunek eman lezaketzen eta nahitaez bete beharreko protokoloen arabera. Erabiltzaile guztien funtsezko lankidetzari eta inplikazioari jarri zaio azpimarra,

eta baita instalazioaren arau orokorrak eta higiene- eta distantzia-neurri indibidualak errespetatu beharri ere.

Arau berezi guztien xehetasunei buruzko informazioa ikusgai dago udalaren webgunean, Kanpondoa kirol-guneko webgunean eta instalazioan jarritako karteletan.

## Pertsonen sexu askatasunaren aldeko nazioarteko eguna



LGTBI pertsonen sexu-askapenaren aldeko nazioarteko eguna dela eta, Agoizko Udalak adierazpen bat onartu zuen ekaineko osoko bilkuran, mugimendu hori osatzen duten hainbat kolektibo eta pertsonen borroka luze eta estimaezina aitortzeko. Beren eguneroko-

tasunean, eta diskriminazio mota oro ezabatzeko lanean, pertsona horiek funtsezko ekarpena egiten jarraitzen dute benetan bidezkoa, berdintasunezkoa eta feminista den gizarte bat eraikitzeko.

Agoizko Udalak pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko eta LGTBI bezalako kolektibo ahulenek eskubide horiek izan ditzaten bereziki zaintzeko ardura jasotzen du mozio honetan. Era berean, zera dio: «Covid-19-ren garaian egin dezagun: krisia ezin da aitzakia izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude «normaltasun berri» hori garai berri bat izan dadin, euskal gizarte errespetuzkoago, justuago,

duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat».

Udalak, gainera, LGTBI pertsonen eskubideekiko urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berresten du, ez soilik adierazpen gisa, baizik eta politika zehatzak eginez eta giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak konprometuz, mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkariekin adostutako ekintzak abian jartzeko.

Oinarrizko giza eskubideez ari gara, norberaren nortasuna definitzeko eta askatasunean bizitzeko eskubideaz.

## Agoizko San Migel Ikastetxeak Skolae programari ekinen dio heldu den ikasturtean

Nafarroako 26 ikastetxe berri, publikoak eta itunpekoak, Skolae hezkidetzaren programan sartuko dira 2020-2021 ikasturtean. Horietatik

kuntza inklusiboaren funtsezko elementu gisa proposatzen da. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren proposamenak

eskura dezaten, legeek ikasleen garapen integralari buruz ezartzen dituzten eskakizunak betetzeko; hau da, ikasleek genero-identitatea alde batera utzita berdintasunean bizitzeko gaitasunak gara ditzaten.



26 ikastetxe gehiago izanen dira, orain arte zeuden etapa eta titulartasun desberdineko 193 ikastetxeei gehitzeko. Horietan, 3.633 irakasle lan egiten dute, 2017-18 ikasturtetik hasi eta prestakuntza-prozesua gainditu dutenak edo amaitzen ari direnak.

**EMOZIOZKO HEZKUNTZA.** Nafarroako hamabi ikastetxek, horien artean Agoizko San Migel ikastetxeak, hezkuntza emozionala sustatzeko proiektu pilotu batean parte hartuko dute datorren ikasturtean. Laguntza Programaren barruan, helburua ikasleen, irakasleen eta ikastetxeetako komunitate osoaren ongizate emozionala bilatzea da. Proiektu pilotu hau abian jartzea eraldaketa-prozesu pedagogiko batean sartzea ardatz eta hobekuntza-proposamen gisa duten ikastetxeei zuzenduta dago, inplikazioak hezkuntza-komunitate osoa barne har dezan, bere nortasunean eta hezkuntza-proiektuan eragina izan dezan.

24 Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei dagozkie, eta bi Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloak dituzten ikastetxeei. Horien artean Agoizko San Migel ikastetxea dago.

ikastetxearen zein ikasgelaren hezkidetzaren kudeaketan eragiten du, berdintasunaren aldeko konpromisoa eta erantzukizuna bermatuta.

Nafarroako hezkuntza-sistemari ikastetxeak hezkidetzaren zentro bihurtzeko beharrezko baliabideak ematea proposatu du Skolae. Programa hau kalitatezko hez-

Skolae programak planteatzen duen helburua da behar diren baliabideak ematea Nafarroako unibertsitatez kanpoko sistema hezitzaileko irakasle guztiek beharrezko gaitasun profesionala

## 2.790 bizilagun gara

Udalak 2020ko urtarrilaren batean erroldatutako kopuru ofiziala onartu zuen. Iazko datuekin alderatuta, 90 pertsona gehiago bizi dira herrian, eta guztira 2.790 gaude erroldatuta, 1.418 gizon eta 1.372 emakume.

Iaz, 23 heriotza eta 26 jaiotza izan ziren. Gainera, 2019an 263 pertsonak eman zuten alta beste herri batzuetatik, eta 170 pertsonak baja eman zuten. Azkenik, herri barruan bizilekua aldatu dute 34 herritarrek, 22 gizonezkoek eta 12 emakumezkoek.



## Udal dermioko ibilbideetan bidezidorretan motorren joana-etorria eragozteko oztopoak

36/1994 Foru dekretuaren 11. artikulua honela dio hitzez hitz: "Debekaturik dago motoredun ibilgailurik landetan zehar ibiltzea, errepideetatik kanpo edo bi metro baino zabalera txikiagoko landabideetan, suebakietan edo zura ateratzeko pistetan barna. Era berean, ez da onartuko Administrazioak espresuki debekatutako beste landa-bide edo pistetan barna zirkulatzea, bi metrotik goitiko zabalera izanagatik ere".

Agoizko Udalak zenbait bidetan

eta Iratiko interpretazio-ibilbidean seinaleak jarri zituen, motorrak bertatik ibiltzea debekatzeko. Hala ere, ikusten ari gara araudia bete gabe jarraitzen dela eta seinaleztapenak ere kendu direla.

Neurri hori betetzeko beste urrats bat eman eta, inguruko bidezidor eta bideetan hesi moduko egurrezko hesolak jartzen ari dira, oinezkoentzako eta bizikletentzako soilik diren pasealekuak sortuz. Berriz ere errespetua, gizalegea eta lankidetzaz eskatzen ditugu.



## Bicimugi-k inkesta bat proposatu du

Aurreko buletineta jakinarazi genuen bezala, 2019ko udaberrian, Agoitz Bicimugi proiektuan sartu zen, Mugikortasun Iraunkorreko Ibilbide Zikloa egiteko. Ibilbide hori EuroVelo 3 Ibilbidean sartu zen, «Erromesaldien Ibilbidea» izenekoan. EuroVelo distantzia luzeko 15 bizikleta-ibilbide osatzen duten sarea da.

Zehazki, Pirinio Atlantikoetako departamentu frantsesetik sartzen den Bicimugi proiektuaren bidez ibilbidearen honako tartea egokitu nahi da: Orbaizeta-Aurizko ordokia-Artzibar (erromatarren

galtzadan barna)-Longida-Agoitz. Agoitzen, ibilbideak kaleak zeharkatzen ditu, eta herritik kanpo, Iratiko Bide Naturelean barna jarraitu eta Iruñeraino ailegatzeko da, eta, bertan, Done Jakue Bidean barrena, Santiagorako bidea hartzea dago.

Orain, Bicimugiko ordezkari gure hirira bisita egin dute ibilbidea aztertzeko, eta inkesta bat helarazi digute Agoitzen gaur egun zer mugikortasun dagoen eta gure herrian bizikletarekiko zer sentsibilitate dagoen jakiteko. Galdetegi bat betetzen lagundu nahi duenak



uztailaren 15era arteko epea du. Esteka honetan aurki daiteke: <https://arcg.is/K5XXC>.

Bicimugik, proiektua arrakastatsua izan dadin, biztanleriaren espektro zabal baten iritzia ezagutu ahal izatearen garrantzia baloratzen du, horregatik parte hartzeraz animatzen gaitu.

Gogorazi nahi dugu aurten proiektua idatziko dela eta 2021ean egingen direla obrak. Lursailetan eta seinaleztapenean egindako inbertsioez gain, hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak egingen dira, gure herriari balioa emateko, lehen mailako eskualde, estatu eta Europa mailako bilbide handi batean egituratuta.



## 'Non dago Mikel?' dokumentala udazken honetan estreinatuko da

Amaia Merinok eta Miguel Angel Llamasek zuzendu eta Ahotsa.info eta Izar Filmsek ekoiztako 'Non dago Mikel?' film dokumentala udazkenean estreinatuko dute, gazte nafarra hil zeneko 35. urteurrena betetzen denean. Mikel Zabalza 1985eko azaroan atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta 20 egun geroago azaldu zen Bidasoa ibaiko uretan flotatzen.

Dokumentalaren protagonista Ion Arretxe da, 1985ean Mikel Zabalzarekin batera atxilotutako pertsonetako bat. Ionek jasandako torturen inguruko testigantza eta hausnarketak balio handikoak dira, eta ez dute inor axolagabe utziko. Gogoratu behar da Ion Arretxe 2017an hil zela. Mikel Zabalzaren anaiak ere atxilotu zituzten polizia-operazio hartan, eta haren ilobek ere hartu zuten parte dokumentalean, Mikel osabaren hilketatik egia, justizia eta erre-

parazioa aldarrikatzen jarraitzeko konpromisoa hartu duen hurrengo familia-belaunaldiak.

Gainera, film honek EITBk Zabalza kasuari buruz duen ikus-entzuzko artxibo garrantzitsuaren zati handi bat erakusten du. Artxibo horri esker, gertakari horiek berriro bizi ahal izanen ditugu, garaiko irudien eta Garbiñe Garateren (Mikelen ama), Idoia Aierberen (haren bikotekidea ere atxilotua eta torturatua izan zen, eta bizirik ikusi zuen azken pertsona izan zen) eta kasuarekin lotutako beste pertsona batzuen testigantzen bidez.

Gogoratu behar da dokumental hau Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak bultzatu zuela, Zabalza-Garate familia, Aezkoako eta Donostiako Altza auzoko lagun eta pertsonak biltzen dituen herri ekimenak. Proiektua Ahotsa.info-k egin du eta

herri-crowdfunding baten bidez finantzatu da, eta hainbat erakunde publikoren eta mota guztietako elkarten laguntzak ere jaso ditu.

Proiektuaren zuzendaritza, im-passe fase baten ondoren, Amaia Merinok eta Miguel Angel Llamas «Pituk» egin dute, eta oso pozik daude azken emaitzarekin. Filmaren soinu banda Gorka Pastorrek egin du.

Ahotsa.info-k eta Izar Films-ek akordioa lortu berri dute filma elkarrekin ekoizteko, eta aliantza berriak aurrekusi dituzte banaketa egiteko. Helburua dokumental hau ahalik eta leku gehienetan erakutsi ahal izatea da, eta, beraz, estreinatu ondoren, zinemaldi ezberdinetan aurkeztuko da, areto komertzialetan, herri eta hirietako zinema eta kultur etxeetan eta akordioak ixten ari diren telebista batzuetan erakutsiko da.



## Irati HHS Mankomunitatearen oharra

HHS Irati Mankomunitateak Agoizko bizilagunei jakinarazi nahi die inausketako eta soropileko hondakin berdeak Beraxitoa auzoaren azpian horretarako propio egokitutako lekuan utzi behar direla. Ongi kudeatzeko, hondakin horiek POLTSARIK GABE eta dagokien gunean utzi behar dira. Eremu bat dago soropila jartzeko, beste bat adar eta hondar

berdeetarako, eta hirugarren bat egituratzailerako, interesa duen

edonork jaso dezakeena etxeko konpostagailuetan erabiltzeko.



## “Kirol errejeta” itzuli da

COVID-19ren osasun-krisiak eragindako geldialdiaren ondoren, berriro martxan jarri da «Kirol-errezeta» programa espezifiko, patologia zehatzak dituzten pertsonen zuzendua dagoena eta Agoizko osasun etxeak, Kanpondoa kirolguneak eta Agoizko Udalak sortukoak.

Etapari berri honetan, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan espezializatutako langileek (IN-EF ere esaten zaio) jarraipena egiten dute eta Kanpondora joaten diren pertsonen egin beharreko jardueraz arduratuko dira.

Gogoan izan proiektu honen bidez osasun etxeko osasun-langileek beren paziente kronikoentzat agintzen dutela, errezeta farmakologiko tradizionalaz gain, jarduera fisiko espezifiko, «Kirol-errezeta» baten bidez. Horrela, Kan-

pondoa kirol-instalazioetara joan daitezke dagokien kirol-programan sartzeko.

Ekimen honen helburuen artean daude Agoizko biztanleentzako ohitura osasungarriak sustatzea, gaixotasun kronikoak tratatzeko estrategia gisa, ariketa fisikoko eta osasuneko programekiko atxikidura areagotzea, udal-baliabideak eskaintzea eta osasun publikoko sarearekin lotzea.

Informazio gehiago Agoizko Kanpondoa kirol-gunean eta Osasun Etxean eskura daiteke.



## Agoitzek erremontearen etapa berri bat ireki du

Agoizko Toki Eder pilotalekuan Iruñeko Alde Zaharreko VI. Erremonte Txapelketaren estreinaldia izan zen. Hitzordua oso berezia izan zen, e•REMONTE Beti Euskal Jai enpresa berriaren estreinaldia izan baitzen, eta, gainera, Covid-19k markatutako normaltasun berria bezalako testuinguru berezi batean gertatu zen.

Azpimarratzekoa da Agoizko ikusleria paregabearen eta antolakuntzaren arteko sintonia ona (Agoizko Udala, Erremonte Eskola, Erremonte Fundazioa eta e•Beti

Euskal Jai erremontea).

Txapelketak lau bikoteko ligaxka du, denen aurkakoa, Lehen eta Bigarren Mailan, eta Agoitzen jo-

katuko da ostiral eta larunbatetan, uztailaren 11ra arte. Topaketetan bildutako diru guztia Nafarroako Haur minbizidunei Laguntzeko Elkartearentzat (ADANO) izanen da.

